

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1996ko martxoak 7 • 94.zka. •

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

Zineko proiektioak hastear

IX. Argazki lehiaketa

Dorletako Amaren aurkezpena

Kangchenjungara bidean



SEGUNDU BAT NAHIKOA DA RENAULT BAT NAHI IZATEKO



ORAIN URTEAK DITUZU GARANTIA GUZTIEKIN GOZATZEKO

**3 urteko garantiaz*
Renault gama guztietan**

*Momentu bat nahikoa da Renault bat nahi izateko.
Bere itxura, bere ekipamendua,...
Eta denbora asko behar da
eskaini diezazukeen guztiaz jabetzeko.
Bere motorrak, bere prestazioak,...
Orain, inoiz baino gehiago, urteak dituzu
bere garantia guztiez gozatzeko.
Gama guztian 3 urtetako garantia,
baita Trafic eta Master-en ere. Ez galdu denbora
eta etorri zure Renault-a ezagutzera.
Orainxe da unea.*



MECA TAILERRAK, S.A.

Araba Ibilbidea z/g. Tfnoa: 79 59 99
ARRASATE



RENAULT

Urtebeteko Renault garantia; 50.000 Km.rarte edo bi urte gehiago, 1+2/50.000 Km. garantia haunditzeko txartelean jartzen dituen baldintzen arabera.



Badu zentzurik emakumearen eguna ospatzeak?


Reyes Laje
(Etxekoandrea)

Ez dit larregi ardura. Ez diot inportantzia larregi ematen eta zentzu haundirik ere ez diot aurkitzen.



Rufino Martinez
(Jubilatua)

Nire eritziz egun hori ospatzeak badu zentzurik, modistek Santa Lucia eguna ospatzen duten moduan, emakumearen eguna zergaitik ez.




Maje Umerez
(Euskaltegiko irakaslea)

Beno, ez dakit. Nik normalean ospatzen dut, kopatxo bat hartuz... Oraindik gauza asko gelditzen dira aldatzeko baina egun horrek ez dut uste aldaketa horretan eraginik duenik.



Bernabe Makazaga
(Jubilatua)

Ni emakumeekin gutxi ibili naiz. Baina ondo iruditzen zait egun hori ospatzea, horrela egun guztiak berdina izan ez daitezen.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultur sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria



ESKUTITZAK

INSUMISIOARI ZIGORRIK EZ!

Ostera ere boligrafoa hartu eta idazten jarri beharra...

Eta arrazoia, Gipuzkoako herri desberdinetako alkate insumisoak epaitu behar dituztelako, Espainiako Ejerzitoari uko egiteagatik.

Gaur egun, Gipuzkoako 30 udaletxe dira epaituak izateko bidean. Hauetatik 2 alkate ohi epaitu dituzte dagoeneko. Alde batetik, Pasaiaiko Xabi Portugal, hau absolutu egin zuten, eta beste aldetik, Antzuolako alkate ohiari 6 hilabetetako inhabilitazio sententzia heldu zaio.

Zigor sententzi berri honen aurrean antimilitarista taldeek gizarteko gazte zein helduei insumisoaren alde konpromezua hartu eta datorren martxoaren 16an arratsaldeko 5,30etan "Udaletxe Insumisoekin Elkartasuna" lemapean Donostian egingo den manifestaziora deitzen zaituztegu. Insumisioa guztion arazoa da eta adi egon behar da mobilizazio deialdietara. Insumisoak Aurrera Militarrek Atzera.

Insumiso bat.

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Loramendi E., Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta



Zineko proiektzioak martxoaren erdialdera hasiko dira



Estreinuko pelikula Donostian baino hiru bat aste beranduago ikusteko aukera izango dugu Zaraia zineman

ko 10etan. Domeketako proiektzioetako bat umeendako izateko asmoa dago baina hau merkatuaren arabera izango da. Azkenik astelehenetan ere izango da pelikularen bat ikusteko aukerarik.

Udan ez da proiektziorik izango, ekainaren erdialdetik irailaren erdialdera bitartean itxita egongo da eta zinema.

Udaletxeak, hilabete barruan botako diren pelikulen barri izango duen arren, aste bakoitzean jakingo da konkretuki aste horretako pelikula zein izango den. Botako diren filmak merkatuan dauden azkenak izango dira, izan ere Donostiako estreinalditik 3 bat aste barru ikusi ahal izango dira pelikulak Zaraia zineman.

Sarreraren prezioa ez dago oraindik guztiz zehaztuta, nagusien sarrera 400-450 pezeta ingurukoa izango da, txikiena barrez, 300 bat pezeta.

Zaraia zinemaren kudeaketa Don Kruz Maria Ansoalde enpresa azpeitiarrari eman zaio. Enpresa honek zinemaren esplotazio osoa izango du. Dana dala, herritarrek zinema erabili gura izango balute alde zuzenetik aurretik kultur etxean esan beharko lukete, horrela lehenbailehen enpresarekin harremanetan jartzeko.

Proiektzioak martxoan hasi

Martxoaren erdialdera hasiko dira zinean pelikulak botatzen. Proiektzioak asteko lau egunetan izango dira. Eguakotxetan proiektzio bakarra egongo da, gaueko 10etan. Zapatuetan bi, arratsaldeko 7retan eta gaueko 10etan. Domeketan, hiru, arratsaldeko 5etan, 7retan eta gaue-

Zuhaitzez bete dute Urkulu

Joan den otsailaren 26 eta martxoaren lehen ia 2.000 zuhaitz inguru landatu ziren Urkulun. Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Oñati, Eskoriatza eta Eibarreko ikastoletako haurrak gustora aritu ziren lokatz eta putzu artean zuhaitzok landatzen.

Ekimen hau Kutxa Fundazioak antolatu du Foru Aldundiaren laguntzaz. Kutxak, Gaztetxoan Elkarteak sortu zuela aurreko 25 urte betetzen dira eta hau ospatu gura izan dute.

Landatutako zuhaitzen artean, haritzak, halutzak, lizarrak, zumarrak, astigarrak eta urkiak daude.



GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekararren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Artano Taberna

Herriko Plaza
ARETXABALETA



TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

Mamu txuriak bere agerraldia egin zuen



1993ko otsaila geroztik ez dira horrela txuritu Aretxabaletako inguruak

Urkulu beteaz doa

Orain dela hilabete batzuk Urkuluko urtegiak itxura penagarria bazuen ere, otsailean asko gehitu da urtegiaren ur maila. Oraindik ere igotzen doa poliki-poliki eta datozen hilabeteetan ere urak gora egingo duela uste da, apirila eta maiatza hilabete euritsuak izaten dira eta urtegiak goraka egiten dute. Esan daiteke hortaz, urtegiaren egoera ona dela, iazko mailara heldu ez bagara ere. Martxoaren 4an, bere edukieraren %72,9an beteta zegoen, eta urtarrila eta baita otsaila hasieran ere, %50ean. Beraz, otsailean bakarrik %23ko igoera izan du. Datu hauek iazko urteaz konparatzen baditugu iazko egoera askoz ere hobea zela esan daiteke, sasoi honetan, bere edukieraren %98an zegoen eta. 90. urtean barrez, sikutea izan zen eta sasoi honetan %53koa zen Urkuluko ur maila.



Bazter guztiak txuri-txuri utzi zituen otsaileko 4. astean egin zuen elurteak. Edurra gogoz egin zuen, hori bai, inguruko mendi, kale, teilatu etabarrak zuri-tzera heldu arte. Aspaldiko partez, edurrak bisita egin zigun azkenean, izan ere, 1993ko otsailaren geroztik ez dira horrela txuritu Aretxabaletako inguruak. Askok poza hartuko zuen, eskola eta lanera joan barik gelditu zirelako. Beste batzuk barriz, marmarrean ibiliko ziren edurrak eguneroko eginbeharrak aldatu eta arazoak sortzen baititu.

Udaletzeko brigada eta kalegarbitzaileek lan bikaina

Lan ona egin zuten udaletzeko brigada eta kalegarbitzaileek edurra izan genuen egunetan. Udaletxean horrelako egoerarako daukaten plangintza martxan jarri zen. Hiru errelebotan lanean aritu zen udaletzeko brigada, hasi martizen goizean eta eguen ilunkara artean gelditu barik. Udaletzeko Land Roverari pala jarri eta bai herriko eta baita auzoetako bideak ere garbitu zituzten. Kalegarbitzaileak ere, kaleko edurra kentzen eman zituzten makina bat ordu.

BEIRALAN


KRISTALDEGIA
 Loramendi 10 ☎ 79 81 78
 Aretxabaleta

DOIKALSE
 Elektroerosio
 lanak
 Basabe Poligonoa C-1-1
 Aretxabaleta
 Tfno: 79 82 44

IZOTZ
Taberna
 Mitarte, 16
 79 73 65

Martín
RELOJERIA • BITXITEGIA
Bere bezeroen zerbitzuan
 Mitarte, 16
 Tfnoa: 79 01 72

IX. argazki lehiaketa



Apirilaren lehena da lanak aurkezteko azken epea

Murrukixo Mendi Elkartek IX. argazki lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan, nahi duten argazkizale afizionatu guztiek parte hartu dezakete. Gaiari dagokionez bi aukera daude, gai librea alde batetik eta mendiaren ingurukoa

bestetik. Argazkiok bai txuri beltzean eta bai koloretan aurkeztu daitezke, partehartzaile bakoitzak gehienez lau eta beste inon saritu bakoak izan beharko dute. Argazkien neurriari dagokionez, norberak nahi duen neurria izan dezakete

argazkiek baina hori bai, 30x40ko euskarrian jarririk egon beharko dute. Lan bakoitzaren atzekaldean lema eta argazkiaren izenburua jarri beharko dira.

Lanak aurkezteko azken eguna apirilaren lehena da. Epaimahaia, azgazkigintzan ezagunak diren pertsonak osatuko dute eta hartutako erabakia aldaezina izango da.

Sariak gai librearen inguruko argazkiei dagokienez, lehenengo saria, 35.000 pezeta eta garaikurra; 2. saria, 20.000 pezeta eta garaikurra eta 3. saria, 10.000 pezeta eta garaikurra.

Mendiaren inguruko gaiari dagokionez barrez, lehenengo saria, 35.000 pezeta eta garaikurra; 2. saria 20.000 pezeta eta herriko onenarentzat 10.000 pezeta eta garaikurra.

Sari banaketa apirilaren 19an egingo da udaletxeko erakusketa aretoan arratsaldeko 8retan.

Lehiaketaren inguruko informazio gehiago Murrukixo M. E.ra deituta izango duzue, (943)79 93 74 telefonon.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda


Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE

TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

HBk lortu zuen botorik gehien Aretxabaletan

Hauteskunde orokorrak pasatu den domekan izan ziren. Aretxabaletan izandako emaitzak aztertu ondoren esan daiteke lagun kopuru handia hurbildu zela Kurtzebarri eskolara bere botua ematera. Botatzeko aukera zutenak 4.947 ziren eta horietatik %73,2ak botua eman zuten.

Alderdi alderdi aztertzen hasi ezkerro 1993. urteko alderdi botatuenean ordena berdina mantendu da. HBk, EAK eta PSE-EEK jeitsi egin dute botu kopurua eta beste alderdiek barriz, aurrekoan baino botu gehiago eskuratu dituzte. Botu gehien jaso dituen alderdia HB izan da, guztira 891 boturekin. Datu hau 1993. urteko emaitzekin konparatuz gero, orduan baino 34 botu gutxiago eskuratu ditu. Bigarren, EAJ gelditu da, 857 boturekin, 1993an baino 133 botu gehiago lortuz. Ondoren, PSE-EE gelditu da. 704 botu lortu ditu, aurreko hauteskunde orokorretan baino 10 botu gutxiago. EA gelditu da laugarren, 585



Abstentzio maila %27koa izan da

boturekin, 1993. urtetik hona 92 botu galduz. PPK 65 botu gehiago lortu ditu, 262 guztira. Azkenik EBk 182, 1993. urtean baino 33 gehiago.

Botu nuloak 54 izan ziren eta zuriak barriz, 61.

Errolda barritzeko lanak aurrera eramango ditu Udalak

Bost urtetik behin barritzen da errolda. 1991. urtean aurrera eramane ziren azkenengoz Aretxabaletan errolda barritzeko lanak. Hori dela eta, aurten osteraren errolda barrituko da. Lan horretan Udalak kontratatutako lau langile arituko dira. Hiru hilabete luzatuko dira lanok eta honetarako langileek aurrez formazio ikastaro bat izango dute. Etxez-etxe inkesta bat pasatuko da eta lan horretan martxoaren bukaera aldera hasi eta ekainaren bukaerarako bukatuta izango dituzte lanok. Errolda barrituta gero emango dute zer esanik jasotako emaitzek.

Degabelek ohiko bilkura

Degabel, Deba Garaiko Abelaize Elkarteak ohiko bilkura orokorra egingo du datorren martxoaren 17an. Aretxabaletan, udaletxeko ganbaran, izango da bilkura, lehenengo deialdia goizeko 11,30etan eta bigarrena 12etan.

Batzarrean besteak beste, aurreko ohiko bilkura orokorreko akta irakurri eta bidezkoa bada onartu; 1985eko elkartearen jokaera eta funtzionamenduaren azalpena; 1985. urteko gorabehera ekonomikoak; 1996. urteko aurrikuspena eta ordetzari barriak aukeratzeko hautagaien aurkezpena egingo da.

Gai desberdinak aztertu ziren Loramendi Elkarteak egin zuen mintegian


Joan zen otsailaren 24an Loramendi euskera elkarteak 1995eko azaroan hasi zuen mintegiaren bigarren zatia egin zen.

Lehenengo saioan esan zena kontutan hartuta, Zuzendaritza Batzordeak bost puntu garrantzitsuenak aukeratu zituen bigarren bileran tratatzeko, horien artean, barne antolaketa, lokalaren erabilerak, lantaldeak, Debagune eta Topagune

eta langileen funtzionamendua.

Gai hauek tratatzeko lehenengo saioan 37 lagun bildu ziren eta bigarrenetan 28. Hiru taldetan banatuta gai guztiak eztabaidatu ziren eta bukaeran talde bateratuan mintegiaren balorazio orokorra egin zen.

Mintegian esandakoak hurrengo Batzar Orokorrera eramango dira bertan onar daitezten.



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola 1 8 pabiloia
ARRASATE

Tfnoa: 79 62 18/ Fax: 77 11 30

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA




Etsai edo lagun baina beti harrigarriak

Ezagutzen diren animalia espezetatik ia hiru laurdena (900.000 inguru) intsektuek osatzen dute. Hala ere, intsektuen eraniztasun honen oinarrian jokaera eta itxura patroi bera mantentzen da.

Ezaugarriak:

Intsektuak ARTHROPODA *phylum*-ean kokatu dira, gorputza segmentatua (Artropodo guztiak zizareen ondorengo izaki) eta hankak artikulaturik baitituzte. Dena dela, segmentu guztiak hiru tagma nagusitan bildu dituzte: **Burua** (non begi konposatuak, aho-piezak eta antena unirramoak kokatzen diren), **toraxa** (sei hanka eta bi hego pare dituen) eta **abdomina** (ugal apendizeez hornitua eta zenbaitetan zerko terminalez apaindua).

Bestalde, *metamorfosia* da intsektuen bereizgarri ezagunena. **Arraultzetik** ateratzen den izakiak ez du ale helduaren antzik (intsektu primitiboetan ezik) eta ondorioz zenbait *estadio* pasa behar izaten ditu bere bizitzan zehar. Hasierako **larba pupa** bihurtuko da eta egoera inaktibo honetan aldaketa garrantzitsuak jasango ditu **imago** (heldua) bihurtu arte. Imagoak oso bizitza laburra du, kopulatu eta arraultzeak ipini bezain laister hiltzen baita. Intsektu primitiboetan *metamorfosia* ez da bere osotasunean burutzen.



Metamorfosi holometaboloaren (osoaren) eredu grafikoa:
1.- Arraultzeak, 2.- larba, 3.- pupa, eta 4.- imagoa.

Arrakasta eta garrantzia:

Intsektuen bi ezaugarri izan dira animalia hauek lortu duten arrakasta numerikoaren erantzuleak: Alde batetik, hegan egiteko aukera, honek sakabanatze ahalmena eta leku desberdinak kolonizatzeko posibilitatea eskaini dielarik; eta bestetik gainontzeko animaliek aprobeitza ezin dezaketen janariak hustiratzeko ahalmena (egurra, gorotzak, tabakoa, papera, oihalak,...) *espezie antropofiloa* (gizakiaren inguruan bizi dena) izaki. Horrela, garrantzi ekonomiko handia eskuratu dute. Espezie batzuk onuragarriak zaizkigu: landare polinizatzaile gisa, ezti produktore gisa,... Baina kaltegarriak ere baditugu: parasitoak, gaixotasunen transmisoreak, kultiboetako izurriteak,...

Mikel Arroiabe

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

T
X
i
L
A
R
R
A



ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15


Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA

Berrikuntzak



MODAN
DAGOEN
GUZTIA

Iparagirre, 4 Tfnoa.79 21 24



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

Barrez lehertzen gure txiskoleroekin

Pasatako azken asteotan lotsa Aretxabaletan utzita abiatu ziren Oier Sarasua, Iker Iglesias eta Xabier Idigoras batetik eta Josu Otxoa, Iñaki Elorza "Peru" eta Iban Errarte (azken hau arrasatearra) ETBko Txiskola lehiaketara. Bost partaide hauek beraien txiste gaitasuna eta xelebrekeriak erakutsi arren ezin izan zuten garaipenik etxera ekarri, hala ere ez zaizkigu esku utzik bueltatu, hona hemen beraien txiskolakeriak.

• *Zer moduzko esperientzia izan da Txiskolan egotea?*

Iker Iglesias: Esperientzia berri bat izan zen. Jende jator ugari eta telebistaren mundua hurbiletik ezagutzeko aukera izan genuen.

• *Prestakuntza berezirik egin da zenuten txiskolara joan aurretik?*

"Peru": Ezer ere ez, lotsagarria izan da gurea. Bakoitzak ahal genuen bezala ikasi genuen...gutxi. Hori izan zen gure porrotaren arrazoa. Eskerrak arrasatear moduan aurkeztu gintuztela!!

Xabier Idigoras: Programaren martxa aztertu genuen eta horren arabera hirubat entsaio burutu genituen. Zerbait prestatzea beharrezkoa ikusi genuen, lotsa gutxiago pasatzeko.

• *Nola konpondu zineten beste taldeekin?*

Oier Sarasua: Gure arteko erlazioak adiskide arteko harremana zirudien arerioen artekoa izan beharrean. Txoriherritarren telefono zenbakia ere badaukagu beranduago hauekin

afariren bat egiteko asmotan.

• *Nola portatu zen Atxabaltako jendea?*


Josu Otxoa: Oso oso oso gaizki!! Atxabaltatik guztira bost pertsona joan ziren publiko moduan eta hauek gure familiarrekoak. Hori bai, hala ere lagun ugari etorri ziren gu animatzera, baina kanpotarrak.

Oier Sarasua: Oso ondo portatu ziren, batez ere, animatzerako orduan, oiuhu ugari bota bait zizkiguten. Hala ere, zera azpimarratu behar dugu, programaren grabazioa bukatzean atxabaltarrak gutaz ahaztu eta herrira bueltatu zirela gu han bakarrik utzita, ondorioz kriston komeriak egin behar izan genituen etxera bueltatzeko.

• *Txiste kontalari ona izateko zer behar da?*

Peru: Nire ustez txiste kontalari ona izateko bertsolariaren moduan berezko etorrera bat behar da, txistek graziaz kontatu behar dira eta noski abilezia ere ezinbestekoa da.

• *Zer moduzko azafatak zeuden?*



Josu Otxoa eta Iñaki Elorza "Peru"

Xabier: Uff... azafatak! Bakarra zegoen, baina bera nahikoa gu distraitzeko, hura bai neska puska, adurra dariola egon ginen hirurok, beno ez gu bakarrik...

• *Merezi al zenuten galtzea?*

Iker Iglesias: Ez dut uste galtzea merezi genuenik, jende ugari gure eritzi berekoa da jakin dugunez. Baina beno, galtzen ere jakin behar da, azken finean beste taldea ere gogor ibili baitzen.

Otxoa: Bai, bai besteak mundialak ziren, edozer jokatu nuke finalera heldu eta 2.000.000ak eskuratuko dituztela. Onenak dira!

• *Txiste bat kontatu.*

Oier Sarasua: Juntetan die bi tipo kalien eta batek esaten dio besteari:

- Kauen aspaldiko, zelako gazte zautzen!

- Bai?

- Bai, bai, baine pasada bat, zer itxen dozu ba holako gazte egoteko?

- Nik? ba.. bapez diskutiru.

- Ba! Kabiru, horregaitxik ez da izango?

- Bueno, ba ez da izango.

✍ **Andoni Arana, Jennifer Nelson eta Amagoia Lasagabaster**




Iker Iglesias, Oier Sarasua eta Xabier Idigoras

Hantxenjunda

□ Domeka honetan bertan irtengo dute Felix eta Albertok Kangchenjungara bidean

“Hantxenjunda eta hementxe nago” esaten zuen Jose Luis Zuloagak Kangchenjunga mendia igotzeko saioa egin eta igo barik itzuli zirenean. Euskal mendizaleek behin eta berriz bisitatu dute mendi hau baina ez dute zorte onik izan. Mendi zail eta arriskutsua ei da. Euskaldun bakar batek zapaldu du orain artean Kangchenjungako gaina, Martin Zabaletak hain zuzen ere. 1988. urtean izan zen hau, austriar eta amerikar batekin osatu zuen espedizioa.

Denbora konturatu barik pasatu zaie Felix eta Alberto Inñurrategiri, Cho Oyu eta Lhotseko gainak zapaldu ondoren, iazko urrian etxera etorri zirenetik. Orain beste espedizio baten aurrean daude. Kangchenjungara egiteko diren espedizioak gain gainean harrapatu ditu. “Egia esan, Cho Oyu eta Lhotsetik itzuli eta konturatu ere egin barik pasatu zaigu



Kangchenjunga (8.598 m.) munduko hirugarren mendirik altuena da

denbora -dio Felixek- entrenatzeko ere beste batzutan baino denbora gutxiago izan dugu, nahiko mugatuta ibili gara”. Urriatik hona bitartean, audiobisuala gertatzen eta espedizio berriaren nondik nora-koak zehazten eman dute denbora.

Iazko urtean, herri guztiaren aurrean garbi utzi zuen Felixek espedizio honen berri. Hala ta be, ustekabean harrapatu gaitu guztiok, beste urte batzutan ez moduan aurten lehenago abiatuko direlako Nepal aldera eta aurrekoetan baino ixilago ibili direlako, edo eta kamisetarik atera ez dutelako agian. “Murrukixorekin urtero izan dugu harremanik, gehienbat kamiseta eta fraken kontu horiekin. Aurten as-

pektu hori ez dugu ikutu. Aitortu du Albertok.

Beste batzutan baino lehenago ekingo diote aurten espedizioari. Himalayara joateko sasoi egokienak Monzoi aurretik, hau da, udaberri aldea edo Monzoi ostea izaten dira, udazken parte. Udaberrian ere eguraldia egokia dela baieztu du Albertok. “Nepalera joateko bi sasoi on daude, bata monzoi aurrekoa eta ostekoa beste. Monzoi sasoi euritsua da. Mendi honi begira eta aukeratu dugun bidea egiteko egokiagoa da udaberria. Ur gutxiago aurkituko dugu bidean eta elur jausi arriskua ere txikiagoa da. Mugitzeko ere errazago ibiliko gara”.

Felix eta Albertok Himalayako bost 8.000ko elkarrekin lortu ondoren 6.a lortzeko asmoa dute. Baina oraingo honetan beste bi lagunekin osatuko dute espedizioa. Kike de Pablo bilbotarra eta Juanito Oartzabal gasteiztarra dira taldekideak. Iaz Lhotseko kanpamentuan sortu zen Kangchenjunga igotzeko asmoa. Guztiek mendiaren inguruan esperientzia haundia dute. Lehenago ere elkarrekin ibilitakoak dira, 1994an K2-ko espedizioa laurek osatu zuten, eta esperientzia polita izan zela aitortu dute. Datorren domekan irtengo dute Nepaleruntz, martxoaren amaiera aldera kanpamentua prest izateko asmoa dute. Gauzak behar bezala joanik tontorrerako saioak apirilaren azken egunetan edo eta maiatzaren hasieran egingo lituzkete.

“Patrozinatzaileen aldetik gero eta exigentzia haundiagoa dago”

Kangchenjunga 96 espedizioak BBK, Vital Kutxa eta Kutxaren babesa jaso du eta baita zenbait komunikabiderena ere. Ezagunak izan arren dirua lortzea asko kostatu zaiela adierazi digu Albertok. “Ezaguna izateak beti laguntzen du dirua lortzerako orduan baina horrek ez du esan nahi atea jo ahala dirua ematen digutenik. Aurten ere asko kostatu zaigu dirua lortzea. Patrozinatzaileen aldetik ere gero eta exigentzia haundiagoa dago eta gure aldetik ere saiatzen gara gauzak ahalik eta ondoen egiten. Guzti honek jakina, denbora asko eramaten du”.

Kangchenjunga, mendi haundia

Mendi “haundia” dela esanda definitu digute berba batez Felixek

eta Albertok Kangchenjunga mendia. “Oso mendi altua eta haundia da, munduko 3. mendirik altuena. Kanpo basetik hormara joateko oso bide luzea gelditzen da. Horman erabili behar dugun bidea ere oso luzea da eta ez da batere zuzena. Trabesia luzeak egin beharrean izango gara. 8.000 metrotik gora ere, bide luzean ibili beharra dago”.

Baina munduko hirugarren mendirik altuena izateko ez da agian oso entzuna. Felixek datorren urteik aurrera agian ezagunagoa izango

dela esan du, “Everesten ostean, al-tueran K2 mendiak eramaten du pisu guztia, baina datorren urteik aurrera agian ezagunagoa izango da Kangchenjunga”.

Mendi honen kokapenari dagokionez, K2 Himalayaren alde batean gelditzen bada, Pakistanen, Kangchenjunga mendikatearen beste aldean kokatzen da, Nepal eta Sikkim-en arteko muga eginez. Kangchenjungatik haruntza Himalaya mendikateak jarraitzen badu ere, mendi hau azken 8.000 mila-koa da Makaluren ostean.



Albertok eta Felixek bost 8.000ko lortu dituzte elkarrekin

Mendiak, oihanak, basamortu eta itsasoekin batera, gizakiaren unibertsoaren zati dira, ezer gutxitarako balio duten helburuak lortzarren burukatzeko aukera oraindik eskaintzen duten txoko ireki eta zabalak guztiak.

Gaur egun, gizakiak abenturarako duen zaletasuna asetu eta gorde dezan, inguru garrantzitsu eta oinarritzko horietariko bat Himalaya dugu.

Hara joan denak, ez dezala inoiz ahantzi hango erreketako uren zurrumurrua, hango egun sentietako hotzaren zirrara, ezta bertatik ikus daitekeen izarrik urrutienaren argia ere.

Hango gailurretik ez dadila inor handikeriaz jeitsi. Tontorreraino heltzerik izan ez duenak ez dezala burua makur, mendian ez baitu inoiz inork ezer konkistatu, ez norbere mugak gainditzeaz aparte beste burrukarik irabazi.

Bideko hautsarekin bere aztarnak ezabatuz itzul dadila, bihar -etziko mendizaleek ere historia honen hurrengo atala idazteaz amets egiteko aukera izan dezaten.

Aretxabaletan, 1992ko abenduaren 11an.

(Vascos en el Himalaya liburutik hartua)




Eski irteera

Murruxiko Mendi Elkartek Luz Ardiden eta Super Bareges eski estazioetara irteera antolatu du datorren martxoaren 23 eta 24rako. Izen ematea Murruxikoko lokalean egin behar da, arratsaldeko 6,30etatik 8retara.



Tai Chi klaseak

Eskoriatzako irakasle eskolan Tai Chi klaseak ematen dira hileko 2. zapatu guztietan. Hiru ordu dira, arratsaldeko 3retatik 7rak artean. Valentin Zurbano da irakaslea. Ikasle bakoitzak bere mailan lan egingo du. Apuntatu gura izan ezkerro 71 41 91 telefonora deitu.



25 neskek egiten dute gimnasia erritmikoa

Gimnasia erritmikoz blai

Gimnasia erritmikoa eta aerobic-eko dantza saioak eskaini zituzten Kurtzebarri eskolako neskek kirol etxean. Saio aparta benetan neska gazte hauek eskaini zutena guraso eta beste neska mutiko batzuen aurrean.

Esther Barcenillaren gidaritzapean 25 neskek gimnasia erritmikoa praktikatzen dute. Neskak dira guztiak, hasi 6 urtetatik eta 12 urtetara bitartekoak. Estherren adierazpenetan, gimnasia erritmikoa lantzen hasteko 6 urte da

adin egokiena. Astelehen eta asteazkenetan izaten dituzte klaseak, 4,30etatik 5,30etara bitartean Kurtzebarri eskolan.

Orain artean, urte bukaeran bakarrik egiten zuten jendeaurreko saioa. Aurrerantzean berriz, gehiagotan egin gura dute urtean zehar ikasitakoaren erakusketa saioa.

Kurtso bukaeran beste saio bat egiteko asmoa dute eta ordurako gertatzen hasi beharko dute, beraz, hemendik aurrerako klaseetan.

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05
ARETXABAleta

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURIUAK

Euskadiko Kutxa
Taldekua

Errekabarren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11


JOLAS
LEKU

Mitarte, 10
Aretxabaleta

BASABE
Jatetxea

- Bazkariak
- Menuak
- Karta merkeak

Basabe Bidea z/g ☎ 79 91 84
ARETXABAleta



EGUZKI GRAF
inprimategia

ARETXABAleta

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 79 18 44
Faxa: 79 29 41

ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABAleta

JOSU
HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

Dorletako Ama Txirrindulari Eskola denboraldia hastear dago

F U T B O L A

UDAKo preferenteak 5. ditugu klasifikazio orokorrean, 41 punturekin. Aurreneko bi taldeetatik 6 puntutara aurkitzen dira. Azkenengo partiduan 1 eta 3ko emaitzarekin nagusitu ziren sestuarren aurka hiru puntu lortuz. Golegileak, Alberto Garro, Asier Ingidua eta Kepa Azkue izan genituen. Hiru gol hauez gain aukera gehiago ere izan zituzten eta penalti bat ere hutsegini zuten. Datorren partidua etxean jokatu dute domekan 4,30etan Real Unionen aurka.

UDAKo neskek derbia jokatu zuten joan den domekan Arrasaten. 8-1 galdu zuten gure herriko neskek. UDAKo gol bakarra Nerea Etxeandiak sartu zuen. Hurrengo partidua etxean jokatu dute. Datorren domekan goizeko 11,30etan elgoibartarren aurka neurtuko dituzte indarrak.

Almeneko neskek lortu zuten euren lehenengo gola

Orainarteko debordaldi osoan gol bat bakarra ere sartu barik pasatu ondoren kostata baina azkenean lortu zuten Almen futbol taldeko neskek euren lehen gola. Zumaiarren kontrako partiduan izan zen hau, Almenen jokatu zuten partidua eta 10 eta 1 galdu arren pozik gelditu ziren neskek denboraldiko lehen gola lortu zutelako. Egia esan, zumaiarrek euren atean sartu zuten gola baina epaileak Ane Arenazari eman zion. Aber ba, lehen gola eta azkena ez den izaten eta hurrengoan bat beharrean gehiago izaten diren, animo!



Aurtengo denboraldirako 39 txirrindulari daude Dorletako Ama Txirrindulari Eskolan

Joan den martxoaren 2an Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak aurkezpena egin ondoren datorren domekan, martxoaren 10ean, ekingo diote denboraldiari. Jubenilek Eibarren izango dute karrera eta kadeteek barriz, Azpeitian.

Esandako moduan, martxoaren 2an egin zuten aurkezpena Dorletako Ama Txirrindulari Eskolakoek. Aurtengo urterako 39 txirrindulari daude taldean eta hauek lau taldetan banatuta daude, jubenilak, lehen eta bigarren urteko kadeteak eta infantilak. Jubeniletan 14 txirrindulari daude eta hauen entrenatzaileak Jacinto Sedano

eta Luis Sebastian dira. Bigarren urteko kadeteetan 10 txirrindulari eta hauen entrenatzaileak Ane Guede eta Jose Galan dira. Lehenengo urteko kadeteen taldea barriz 5 txirrindularik osatzen dute eta azken hauek Juan Luis Agirrek entrenatuko ditu. Azkenik infantiletan dauden 10 txirrindulariak Rafa Antia eta Lorenzo Bernalek entrenatuko dituzte.

Hezitzaile fisikoak Juan Ignacio Errasti eta Alex Iturbe dira eta medikua Alberto Garai.

Aurtengo urteko lau taldeen babesleei dagokionez barriz, Fagor, J.M.A. Alejandro Altuna eta Arrasate kirolak ditugu.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

**Dorleta
Taberna**

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

ANGELINES



Autozerbitzua
Mitarte, 16 ☎ 79 61 42



Marko saltzailea



Argazkiko **Maialen Marrodan** eta **Amaia San Vicentek** 3. eta 4. mailako ipuinen sailean 2. saria eskuratu zuten Loramendiko literatur lehiaketan. Hona hemen eurak idatzitako ipuina

Orain dela bi urte oazzen marko-saltzaile bat, ez zen oso aberatsa baina oso maitagarria. Jendea harrengana joaten zen markoak erostera. Marko-saltzaileak Josepo zuen izena, nahiko txikia zen, begi urdinak zituen eta ile kastainoa, beti arlote jantzita joaten zen lanera.

Josepo, Indiako herri txiki batean bizi zen. Beti kexatzen ibiltzen zen, kaskarra zelako, eta markoak altu zeudelako, beti eskilarak hartu behar izaten zituen markoak hartzeko.

Egun batean, liburu bat irakurtzen zebilela liburuan ipintzen zuena egitea bururatu zitzaion. Egin ondoren, esperimentua txarto atera zitzaion, baina beretzako ez.

Handimizia hartu beharrean, txikimizia hartu zuen. Dendara joan zenean txilixoka hasi zen, baina jendeak ez zion kasurik egiten. Orduan Josepo konturatu zen handimizia edan beharrean txikimizia edan zuela.

Momentu horretan jende pila bat etorri zen markoak erostera; jendea hamabost minutu itxaroten egon ondoren, amorru bizian pro-

testaka hasi zen, eta dana bertan behera utzita alde egin zuen jendeak.

Orduan Mikelsio, bere laguna, dendara sartu zen zer gertatzen zen ikustera.

Mikelsiok Josepo ikusi zuen marko baten gainean:

- Zer gertatu zaizu? (esan zuen Mikelsiok).

- Hau da ba; ni beti kexatzen ibiltzen nintzen txikia nintzelako eta behin batean, herriko liburutegian liburu interesgarri bat aurkitu nuen eta bertan ipintzen zuena egin. Esperimento hura bukatu nuenean, konturatu nintzen handimizia edan beharrean txikimizia edan nuela.

Mikelsiok bere etxetik handimizia ekarri zion Josepori, honek hau edan zuen, eta handi egin zen, horregatik Josepok Mikelsiori esker-erak eman zizkion eta beste guztiei barkamena eskatu, eta harreskero Josepo ez da gehiago kexatu, eta gaur egun zorionsua da lanerako eskilara premiarik ez duelako.



AITZIBER
Umeak

Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

IRIARTE

Umeen denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA



Zenbaki

Aholkularitza

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoak: 79 88 75
79 75 99

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

INDUSTRIALDEA
MEDIKU-ZENTROA

Luis Orruño
Medikua
Zaraita
Masaiak eta osteopatia

Industrialdea
Pabelloi F-O b
79 06 82
ARETXABALETA



Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



Neguko hotza eta udaberriko eguzkiaren indar ahula tartekatzen ziren nazionaletan ikasten zuten neska hauek argazki hau atera zuteneko egun hartan. 1946. urtean zen, plazako eskilaretan dotore-dotore ondo gordetako iladetan jarri zirenean.

Txirikiletan Garizuman, kakatorreka (harrapaketan), kanikaka, kromoka jolastea zen orduko umeen moda. Ez zegoen gaur egungo jostailurik, ez horixe, gauza sinpleagoekin ondo pasatzen zuten.

Konturatuko zineten moduan, argazkiko guztiak neskak dira, izan ere, mutilak eta neskak banatu egiten ziren nazionaletan, neskak alde batean eta mutilak beste aldean.

Hala ta be, orduan ere lekutxo bat izaten zuten neska-mutilek elkarrekin egoteko baina gero etortzen ziren maistraren zigorrak, lerroak kopiatzeko, beranduago gelditzeko, e.a.

Goiko iladan: *Josune Lopez de Armentia, M^a Asun Zuazabeitia, Mercedes de los Mozos (maistra), M^a Josefa Iturrospe, M^a Clara Axpe, Markelin Mendieta.*

2. iladan: *M^a Jesus Elortondo, Rosarito Rodriguez, Maritxu Lizarralde, Arantxa Zabala, M^a Luisa Idigoras, Begoña Ayastuy, Mertxe Altube.*



3. iladan: *Amaia Antxia, Angelita Ibarzabal, Encarnación Herce, M^a Nieves Uribesalgo, Irene Diaz de Gereño, Maritxu Zugasti, Maritxu Mondragon, Francisca San Migel, Josune Urcelai.*

4. iladan: *M^a Tere Arenaza, M^a Angeles Unanue, M^a Asun Elgoro, Pilar Larrañaga, Pilar Olazabal, Begoña Etxebarrieta, Arantxa Elgoro, Antonia Gastañaga, Dorleta Arana.*

ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S. A.

“ARINSA”

Basabe Poligonoa “EO-10”
Tfnoa: 79 62 80
ARETXABALETA (Gipuzkoa)

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

Giro aparta



M.J. Aretxaga

Neguko azken egun hauek benetan be eguraldi hotza ekarri dute. Ez dira ez egun egokiak kalean gora ta behera ibiltzeko, txoko epelagoetan egoteko baino.

Horregatik, aurrekoan **Ezkutun** izan zen konzertua ideia ona iruditu zitzaidan. Ez zen jende gehiegi egon baina giro ederra zegoen. Bluesak eta Rock and Rollak giro desberdin eta atsegina eman zioten gauari.

Baina giro ona ez da gaeuz bakarrik aurkitzen. Almeneko futboleko nesken taldeak Zumaiako ekipoaren aurka jolastu zuen partiduan ere, giro ederra egon ei zen. Almenekoek 1-10 galdu zuten, baina denboraldiko lehen gola sartu zuten. Zumaiarrek euren atean sartu zuten gola baina profesionalek esango zuten moduan holakoa da futbola. Azkenean, arbitroak gola **Ane Arenazari**

eman zion, zorionak berari eta talde osoari.

UDAKo neskak ere ez ziren oso fin ibili, "Mondra"ren aurka 8-1 galdu zuten. Atxabaltarren ohorea **Nerea Etxeandiak** salbatu zuen gol bat sartuz. (Arbitroak mondrautarren alde egingo zuen eta).

Damaso Zuazua ere pozik azaldu zen Arrasate irratian Bukavu proiektuaren inguruan egin zioten elkarrizketan. Dagoeneko 8 milioi inguru batu dituzte. Ea bururatzen zaigun diru gehiago batzeko beste bideren bat.

Diru faltaz dabilzan beste batzuk **Atxabaltako insumisoak** dira. Dirulaguntzarik ez dutela esan didate baina hala ta be, saiatzen dira eguneroko lanaren bidez euren eskaerak herritarrei adierazten. (Lan ederra egin du norbaitek marrazki guzti hoiak egiten).

Hain pozik ez daudenak barriz, Atxabaltako zenbait guraso dira. Herrian **barizela epidemia** ei dago eta 93-94 urtean jaiotako ume gehienak pasatu dira anbulatoriotik, beraz nagusiak ere argi ibili.

Azkenik ez ahaztu aste hau gure astea denaz. Emakumeon eguna bihar ospatzen da eta nik dagoeneko plan ederra daukat. Loramendiko **Tril emakume taldeak** sagardotegira antolatutako afarira joango naiz, bapo-bapo afaltzera.

Animatu zaitez zu ere! (Trankil, mutilok ere joan zaitezke eta.)

A R E T X A Z O K A

LANA

- Valdezate taberna inguruan giltza batzuk galdu dira. Bizkaiko Foru Aldundia dioen narruzko giltzatak. Deitu 79 01 05 telefonora.

- Emakume euskalduna eskaintzen da ordu batzuk lan egiteko. Tfnoa: 79 43 63

- Klase partikularrak emango nituzke, 2. REMerarte. Telefonoa: 79 27 14

- Euskaraz, ingelesez, gazteleraz eta beste hizkuntza batzuetan ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Tfnoa: 79 47 54.

ETXE BIZITZA

- Logela bat salgai dago. Erosi berria da. Bi ohe tolesgarri ditu, erropentzako bi armairu, eta espilodun apalategia. Armairuaren neurria, 3,46 metro zabaleran eta 2,4 metro altueran da. Harremanetarako telefonoa: 79 57 07 da eta Pauligatik galdetu.

- 82 m2-ko lokala salgai. Hiru horma kalerutza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago. Telefonoa: 79 01 17



Tril emakume taldea

“Taldean ekintza desberdinak antolatzen ditugu”



Gemma Zabala, Mari Tere Etxabe, Maribi Inda, Amparo Errasti

Bihar, martxoaren 8an Emakumearen eguna ospatzen da. Atxabatlan ere badugu emakume talde bat, Tril emakume taldea hain zuzen ere. Egun horretarako sagardotegira irteera antolatu dute, ez emakumeendako bakarrik joan gura duten guztientzako baina.

• **Zenbat emakume zaudete Tril emakume taldean?**
Zortzi.

• **Noiz elkartzen zarete?**
Martizenetan elkartzen gara Loramendiko lokalean.

• **Zer egiten duzue batzarretan?**
Gauza desberdinak antolatzen ditugu, hitzaldiak, ekintza desberdinak, e.a. Oso ondo pasatzen dugu.

• **Emakumearen egunaren inguruan zer duzue esateko?**

Guk ospatzen dugu behintzat. Sagardotegira irteera antolatu dugu, baina ez emakumeentzako bakarrik gura duten guztientzako baina.

• **Zuein etxeetan nork agintzen du?**
Danetik dago, batzutan gizonak beste batzutan guk.

• **Nork egiten ditu etxeko erosketak?**
Geuk egiten ditugu.

• **Zer da egun arrunt batean egiten duzuen?**
Maribi: Goizean pasio bat emateko ohitura dut. Gero etxeko lanak egin, errekauiak, bazkaria prestatu, e.a. Eta arratsaldetan lagunekin irten.

• **Zein da zuein mania bat?**
Mari Tere: Etxetik egun erdi baino denbora gehiagorako irten behar badut butanoa kendu behar izaten dut.


• **Non bizitzea gustatuko litzaizueke?**
Amparo: Arrasaten bizi naiz baina Aretxabaletan bizitzea gustatuko litzaizuke. Gemma: Bergararra naiz baina Aretxabaletan oso gustora bizi naiz. Maribi: Baserrian bizi naiz eta kalean bizitzea gustatuko litzaizuke. Mari Tere: Bizi naizen lekuan.

• **Belarria ala eztarria duzue hobea?**
Gemma eta Maribi: Guk belarria.
Mari Tere eta Amparo: Guk eztarria.

• **Parrandazaleak zarete?**
Bai, zaleak bai. Edadea be aurrera doa baina oraindik ere botatzen ditugu parranda batzuk noizean behin.

• **Zein aktore gustatzen zaizue?**
Amparo: Anthony Quinn; Gemma: Kevin Costner; Maribi: Imanol Arias; Mari Tere: Andy Garcia.

• **Tril emakume taldetik zer duzue esateko?**
Herriarrei gure taldea ezagutzera etortzeko esango genieke.



Beheko laukian, Aretxabaletan azpian dauden berbak zelan esaten diren aurkitu beharko duzu:

- 1.- PERTSONA - L...
- 2.- HURBIL - G...
- 3.- NAHITA - G...
- 4.- ESERI - J...
- 5.- GEHIEGI - L...
- 6.- BEZALAKO - M...

P	Z	J	I	G	E	R	R	A	L	Z	B
T	I	E	S	I	G	Z	U	X	E	O	I
I	X	O	I	U	E	R	A	L	Z	R	I
O	Z	Z	D	S	R	N	A	S	R	Z	B
K	S	O	A	I	N	U	G	A	L	G	O
U	A	M	B	T	P	Z	J	B	T	A	I
D	U	Z	G	A	O	I	M	O	D	S	P
O	A	A	E	U	I	A	P	B	G	J	A
M	S	M	R	P	R	A	G	U	D	L	O
I	I	B	T	I	T	E	Z	O	Z	O	P
O	A	D	U	U	A	R	T	K	R	O	R
U	S	I	B	Z	U	A	P	A	M	R	P

Gurutzagrama

Erosleak	Zer gauzak?	Ogi egilea	Krypton	Naf. Etxaurra
Ordezkoa	Antzerki mezak	Egon zaituz	Giza iturako automat	Kasik
Uretako animalia				Ez eme
Emakume erakunde				Mozkorrak
				Röntgen
				Beteak
Amerizioa		Gerzia		
Mostaza		Metaketa		
			Desaituko ur-toki	
			Azkenekoa	
Alderdi troskista		Noka, zuen		
Suari dario		Zoratu		
	Egile atzirikia		Eguna	
	Jakintzu		Nafarroako hiria	
Amazulu	Eserleku			Azala
	Ahuia			
			Aluminioa	
			Uranioa	
Ordots			Ezerta	
Ahinauk			Portu	
			Azido mota ezaguna	Kontso-nantca
				Entzun!
Aic. hitz eikar.		Detektatzailea		
Aldrebes!		Lehen eta azkenkoa		
		Pisua hustu		
		Kontso-nantca		
Itxura			Gipuzkoako hiria	

BERGARA



Martxoak 17

KONTZERTUA

Udal musika badaren kontzertua. Novedades Aretoa eguerdiko 12,30etan.

Martxoak 30 zapatua

ERRAMU ZAPATUKO FERIA

Bertso jaialdia izango da udal pilotalekuan gaueko 10,30etan.

OÑATI



Martxoak 10-22

FOSILEN ERAKUSKETA


Jesus Maria Amozarrainek batutako fosilen erakusketa egongo da ikusgai udaletxeko areto nagusian.

Martxoak 11-15

MENDIKO ASTEA

Aloña Mendi taldeak antolatuta mendiko astea. Santa Ana antzokian.

ARRASATE



Martxoak 9

ANTZERKIA

Agerre antzerki taldearen eskutik, "ZERGAIK PANPOX" antzezlan. Amaia Antzokian izango da gaueko 10,30etan. Sarrera 800 pezeta, gazte txartelarekin 600 pezeta.

Martxoak 14 eguna

ZINEA

"SEXO ORAL" Amaia Antzokian gaueko 9,30etan. Sarrera 400 pezeta, gazte txartelarekin 350 pezeta.

Martxoak 21 eguna

ZINEA

"LAS ESPOSAS" Amaia Antzokian gaueko 10,30etan. Sarrera 400 pezeta, gazte txartelarekin 350 pezeta.

EKIN BIDEO

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak...
Enpresendako promozio bideoak.
Eskola eta Elkarteendako promozioak eta ekintza bereziak.
Etxeetan grabatutako bideoen muntaiak.

Otalora 15 • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 78 37

**KIXKOR
TABERNA**

Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta



**Lurrindegia
Opari-denda**
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

TXIMAK
ileapaindegi
mistoa

••••••••••
Herriko Plaza, 5 - behea
Tfnoa: 79 83 64
ARETXABALETA

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat


Iparragirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETA

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gozategia
Panaderia - Pasteleria*



Aretxabaleta
Mitarte, 1 - Tfno. 77 00 81
Aretxabaleta
Obrador Propio

**MENDIOLA
ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA



Martxoak 8 eguakotxa

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Emakumearen eguna ospatzen da bihar. Hori dela eta, **Tril emakume taldeak Ataungo Urbitarte sagardotegira irteera** antolatu du.

Martxoak 9 zapatua

ALMENEN ANTZERKIA

"**Ai ama, hau panorama!**" Almeneko guraso eta irakasleek antzeztutako antzerkia berriz ere ikusteko aukera izango da. Datorren zapatuan antzeztuko dute Almenen eta ikusteko gogoz gelditu diren guztientzat zuzenduta dago. Bi emanaldi izango dira, bata erdaraz arratsaldeko 5etan eta bestea euskaraz arratsaldeko 7retan. Lekuak: Almeneko aretoan.

Martxoak 10 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Eskoriatza-Arrasate-Bergara-Soraluze-Bergara-Aingeruzar-Bergara-Aretxabaleta. Guztira 58 Km.

Martxoak 16 zapatua

JAIALDIA

HIRUATX, Hirugarren Mundu Taldeak antolatuta jaialdia egongo da Zaraia zinemaren. Alde batetik **Jon eta Aitor Sarasuak** euren diska berriko, "**Fauna txiki bat bertso berrian**" abestiak abestuko dituzte eta beste aldetik **Andoni Egañak** ere "**Tximeleta sabelean**" bere diskako kantak abestuko ditu. Honez gain, **Juan Luis Lekunberrik** sortutako bertso doinu berriak ere kantatuko dituzte. Zaraia zinemaren izango da gaueko 10,30etan.

Martxoak 17 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Arlaban-Landa-Ozaeta-Narbaxa-Ozaeta-Aretxabaleta. Guztira 62 Km.

DEGABEL ELKARTEAREN OHIKO BILKURA

DEGABEL, Deba Garaiko Abelazle Elkarateak, ohiko bilkura egingo du. Aretxabaletako udaletxeko ganbaran izango da. Lehenengo deialdia goizeko 11,30etan, 2.a 12etan.

ZARAIA M. T.AREN IRTEERA

Zaraia M. T.ak **Txaralzora** egingo du irteera.

Martxoak 22 eguakotxa

NAGUSIEI ZUZENDUTAKO IPUINAK

Loramendi Elkarateak antolatuta **Pello Añorga** ipuin kontalaria izango da Loramendiko lokaletan gaueko 10etan. Ordaina 300 pezeta da. Nagusientzako zuzenduta dago.

Nafarroako euskaltegiei

laguntzeko lka-ko forro polarrak salgai daude Loramendi Elkartean. Haurrenak 4.500 eta 5.500 pezeta bitartean. Nagusienak barrez, 6.500 pezetatan. Joan, ikusi eta lasai probatu daitezke Loramendiko lokalean.

67. urtean jaiotakoak eta ikastolan batera ibilitakoek **afaria** izango dute datorren hilaren 16an Taberna Berri jatetxean. Izena emateko taberna horretan bertan egin behar da.

"**Goma espumazko**" maskara ikastaroa, **Soloik Solo gazte taldeak antolatuta**. Martxoaren 16, 23 eta 30ean, Loramendi Elkartean. Izena emateko Loramendi Elkartean martxoaren 13a baino lehenago. Ordaina 1.500 pezeta. Informazio gehiago Loramendiko lokalean 77 09 70 telefonon.



BEHARREZKO TELEFONOAK

Aretxabaleta

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi K.E.	77 0970
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	76 14 69
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	79 13 57
• SOS Deiak	088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETAKO




Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28

ARETXABALETAKO

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



**Eta orain toki aldaketarik
%50erainoko beherapena.**

GRUPO

AMUEBLADORA
MONDRAGONESA

a, eme. sukaldeak

Zerkaosteta, 3 • ARRASATE • Tfnoa: 79 15 03